

# WE'RE EUROPEANS

#EUROPEDAY

[www.democrats.eu](http://www.democrats.eu)

## Euzkadi Buru Batzarraren adierazpena Europaren Etorkizunari buruzko Konferentziaren amaieran

Europaren Egunaren ospakizuna iritsi zaigu aurten 2022.urtean argi eta garbi ikusi dugun errealitatearen eskutik: pandemiak eta esparru guztietan izan dituen ondorioek, bai eta Vladimir Putinen tropek, legearen kontra eginez Ukraina inbaditu izanak ere erabat premiazko egin dute Europa federala eraikitze bidean aurrera egitea. Europa erresilentea, iraunkorra, digitala, hiritargoarekin konektatua, aniztasunean batuta eta koherentea bere jarduera guztietan, sorreratik dituen printzipio eta baloreekin. Europako Batasunak, testuinguru bietan, berriro erakutsi baitu, bere sorreran bezalaxe, guztiz eraginkorra dela mehatxu globalei aurre egiteko. Bertute hori argi eta garbi ikusi du hiritargoak. Baina, aldi berean, egungo ahultasun eta gabeziez jabetu gara eta egin beharreko erreformez ohartu gara, proiektu komun gisa aurrera egiten jarraitzeko.

Halako proiektu bati eskatzen zaion erresilentziak, bakezko eta elkarbizitzazko esparru bati eutsiko badio, garapen ekonomiko bidezko, inklusibo eta iraunkorra behar du. Ekonomia zirkularrean oinarritutako hazkunde erdua, deskarbonizatua, digitalizazioak ematen dituen aukerak baliatuko dituen eta inguru egonkor eta seguruan funtzionatuko duena. Aberastasunaren banaketa bidezko eta justua, pobrezia desagerraraziko duen eta aukeren berdintasuna bermatuko duen eredu soziala finantzatuko duena. Oinarrizko zerbitzuen karta bat, pertsona guztientzat bizitza duin, oso eta berdintzailea ahalbidetuko duena.

Trantsizio hau bultzatzeko, laguntzeko eta prozesu bidezko bihurtzeko behar diren neurriek goitik eragindako koordinazioa eskatzen dute, Europako Batasunak bideratu behar duena. Eta, jarraian, erabaki-prozesuetan parte-hartzea eta gardentasuna sustatuko dituen gobernantzari bide eman behar zaio, politiken betearazpenetan are inplikazio eta arintasun handiagoa ahalbidetu ditzaten. Egoera honetan, Euskadikoa moduko errealitateek asko dute eskaintzeko eta jasotzeko, bai eta egin beharreko eboluzio horretan parte hartzeko borondate sendoa ere.

Batasunaren egungo egiturak, zalantzarik gabe, norabide honetan eman beharreko bilakaera eskatzen du. Premia handiko eboluzioa, aurre egin behar diegun gertakarien magnitudea ikusita eta beren abiadura aintzat hartuta. EAJ-PNVk uste du ekimen bikaina izan dela, prozesu honetan, hasiera-hasieratik, hiritargoa inplikatzeko. Hori izan da amaitu berri den Europaren Etorkizunari buruzko Konferentziaren xedea.

### Prozesua

EAJ-PNVri poza eragin dio, lehenengo eta behin, Europaren Etorkizunari buruzko Konferentzian zuzenean parte hartu ahal izanak Josune Gorospe diputatuaren eskutik, ekarpen esanguratsua egin baitu osoko bilkuretan zein atxikitako lantaldeetan. Bere lanak ahalbidetu du kate-begi berri bat jartzea mende luze batean egin dugun ibilbide

politikoaren katean, gure tradizio europazalea berretsiz, bai eta Batasunaren eraikuntzaren mugarri nagusietan parte hartze aktiboa izateko dugun bokazio argia ere, EAJ-PNVk bere fundaziotik egin izan duen bezala.

Prozesuari dagokionez, aitortzen dugu Konferentzia honek ekarri digula Batasunaren historian aurrekaririk ez duen elkarrizketa irekia. Bere argi-ilunekin, Konferentziak mugarri bat jarri du eta jarraipena eman behar zaio, erakundeen eta hiritargoaren arteko parte-hartze eta solaskidetza mekanismoak hobetuz eta egonkortuz. Bete betean asmatu da ekimena parlamentuaren bidez jorratzearekin, bai eta eztabaidak toki eta erregio mailetara eramateko mekanismoak saiatzeko erakutsi den bokazioarekin, Europaren eraikuntzak orain arte eraman duen prozesua goitik behera aldatzeko. `Top down´ eredutik `Bottom up´ eredura eboluzionatzeko saiakera izan da, eta bide horretan aurrera egiten jarraitu beharra dago.

Pandemiak eta berarekin ekarri dituen mugapenek nabarmen baldintzatu dituzte Konferentziaren beraren funtzionamendua eta garapena. Lehenik eta behin, hasiera batean aurreikusitako egutegia atzeratu eta laburtu zuten. Gainera, interakzioa mugatu zuten, zati batean konpentsatua, plataforma digitalean egin zen esfortzu handiarekin.

EAJ-PNVk deitoratzen ditu Konferentziaren hasiera markatu zuten duda-mudak, beldurrak eta azpikeria politikoak, presidentetzaren eta batzorde exekutiboaren buruzagitza ahuldu baitzuten. Era berean uste du hobetu daitezkeela hiritarren panelak eratzeko aukeratu ziren formuletako batzuk. Desiragarria ere izango zatekeen panelen eraketan are oreka handiagoa bilatzea, bai eta gizarte zibilarentzat esparru zabalagoa ahalbidetzea ere. Azkenik, lantaldeen baitan erabakiak hartzeko orduan eman den gardentasunik eza gaitzesten dugu, bai eta Konferentziaren osoko bilkuretan hobetu beharko zen dinamika eskasa ere.

Edozein kasutan, gure Batasunaren etorkizunari buruzko hausnarketan hiritarrak masiboki inplikatzeko lehen ahalegin honek erakutsi du interesa egon badagoela Europarekin eta bere etorkizunarekin. Europako hiritarren paneletan, nazioetako paneletan, gazteriari buruzko Europako ekitaldian eta on-line plataforman eman den parte-hartze maila benetan esanguratsua izan da termino kuantitatibo eta kualitatiboetan. Hori dela eta, egoki jotzen dugu parte-hartze ildo hauei eustea, gero eta pertsona gehiagorengana iristeko neurriak hartuz. Ondorioen agiriak jasotzen eta laburbiltzen ditu, erregistratu diren milioika interakzioetatik iritsi diren bederatzi ardatz tematikotan bilduta, hiritarren paneletan eta gazteriari buruzko Europako ekitaldian egin diren ekarpenak. 1.600tik gora proposamen jaso ziren plataforma eleanitzean eta idatzita eta egituratuta aurkeztu ziren 50.000 ideia gehigarriekin osatuta.

EAJ-PNVk egiaztatzen du gure Batasuna hobetzera begira hiritargoak proposatzen dituen diagnostikoak eta irtenbideek erakusten dutela Europa federalagoa finkatzearen inguruan eta benetako europar `demos´ bat eraikitzeke orduan eman daitezkeen beldurra Estatuena dela, Estatu horiek osatzen dituzten pertsonena baino. Lehenengok tematuta jarraitzen dute beren mugak eta "interes nazionalak"

# WE'RE EUROPEANS

#EUROPEDAY

[www.democratis.eu](http://www.democratis.eu)

kudeatzearekin zerikusia duten dinamiketan. Batasunean bizi diren pertsonak, ordea, harreman normalizatuagoa dute proiektu partekatu honek dituen abantailekin, eta horrek talka egiten du ezinbesteko ditugun eraldaketak Europako Kontseilutik inposatzen diren eragozpenekin. Era berean, hiritargoak Batasunarekin konektatzeko lehen mailatzat identifikatzen du berarengandik hurbilen dagoen gobernantza maila, eta konexio koherentea eskatzen du Europako erakundeen eta zerbitzu gehienak ematen dizkieten horien artean.

## Ondorioak

EAJ-PNVk txalotzen du Europako Etorkizunerako Konferentziaren ondorioak jasotzen dituen txostenak irudikatzen duen Batasuna federalagoa izatea, iraunkoragoa, demokratikagoa eta parte-hartzaileagoa, sozialagoa, immigrazioaren fenomenoari erantzuteko orduan elkartasunaren eta integrazioaren bidetik egitearen aldekoa izatea eta konektatuagoa toki eta erregio mailako botereekin.

Agiria bederatzi ardatzetan egituratuta dago, hauen artean klimaren aldaketa eta ingurumena; osasuna; ekonomia sendoagoa, justizia soziala eta enplegua; Batasuna munduan; baloreak eta eskubideak, Zuzenbide estatua eta segurtasuna; transformazio digitala, demokrazia europarra; migrazioa; eta hezkuntza, kultura, gazteria eta kirola.

EAJ-PNVk bat egiten du iraunkortasunaren eta trantsizio energetikoaren eta mugikortasunaren aldeko apustuarekin, zerbitzu eraginkorrak sortuz hiritargoak aldarrikatzen duen garapen bidezko eta errealistarekin. Ekonomia digitalean sinesten dugu, zeinetan pertsonak izango baitira beren pribatutasunaren eta beren eskubideen oinarri nagusia, bai eta zibersegurtasunarena eta datuen industriaren garapenarena ere. Era berean, elikagaien produkzioa iraunkorago eta erresilenteago egitera bideratutako proposamenekin bat egiten dugu, bai eta balio-katean produktoreek egun duten posizioa hobetzeko ere. Gure xedeetako bat ere bada berrindustrializazio inteligentea bideratzea, gure autonomia estrategikoa bermatuko duena, bai eta enplegu politika zuzen bat ere, non etengabeko prestakuntza eta lan bizitzaren etapa guztietan sustatzeko laguntza izango diren esparru horri egonkortasuna emateko berme nagusia.

Gure harrotasuna erakusten dugu hiritargoak zaugarritasun egoeran dauden pertsonetikiko erakutsi duen sentiberatasunagatik, Batasunaren lurralde osoan gutxieneko prestazio maila bat bermatuko duen Europako eredu sozialaren alde adierazi duen apustu irmoaren bidez adierazia. Proposamen honetan Osasuna eta Hezkuntza giltzarri jotzen dira justizia sozialaren egitura eraikitzeke orduan. Partekatzen dugu immigrazioaren arazoari heltzeko planteatzen den ikuspegi ireki eta humanista, eta apustu hori konektatzen dugu Batasunak finkatzen jarraitu nahi duen demokrazia, askatasun eta segurtasun esparruari ondorioen txostenean eman nahi zaion babesarekin eta apustuarekin. Askatasunezko lurraldea, eguneroko jardunean zaindu eta babestu behar dena, lehenik eta behin gure historia gogoratu eta gure arteko harremanetan beti eman ez diren printzipioen defentsan bizia eman zutenen

oroimena ohoratuz. Funtsezko eskubideekiko errespetua gidari izango duen tokia, bere dimentsio osoan, pentsatzeko eta iritzia emateko askatasunetik hasita eta gutxiengoei zor zaien errespeturaino, non gobernantza maila guztien berezko izaeran eta eguneroko jardunean.

Era berean goraipatzen dugu hiritargoak abalatu izana Batasunaren eredu instituzionalaren inguruan EAJ-PNVk betidanik aldarrikatu dituen proposamenak. Txalotzen dugu guztizko adostasunaren arauarekin amaitzeko proposamena. Bat egiten dugu Europako Parlamentuak ekimen legegilea izan behar duela planteatzen duen proposamenarekin, batasunaren lurralde osoan aukeratuko diren diputatuekin eta, aldi berean, gutxiengo nazionalen presentzia bermatuz, Europaren aniztasunaren parte direlako. Atseginez hartzen dugu orden fiskal berri bat behar izatearen inguruko adierazpena, alderdi berdean ere, dumping-arekin amaitzeko, ogasunen arteko lehiaketa ahalbidetzen baitu eta politika publikoak finantzatzeko ahalmena kaltetzen baitu, korporazio handiek zergak ordaintzea saihesteko erabiltzen duten ingeniari-tza fiskalari mesede egiten dion bitartean.

EAJ-PNVk uste du, hiritargoak eginiko ekarpenetan jasotzen den bezala, talentua dela garapenaren gako nagusia, eta sare produktiboan gazteen talentua integratzea, bereziki emakumeena, justizia kontua izateaz gain, lehiakortasun faktore ere badela. Desberdintasunaren eta genero indarkeriaren atzetik dauden estereotipoen kontra egiteko modurik onena da benetako berdintasunaren kontzeptu integral horretan aurrera egitea.

Argudio horien arabera, panelak agertu dira Europako gazteriarentzat erabat funtsezko agertzen diren aukera batzuen alde, gazte bermea besteak beste. Era berean aldarrikatzen da Batasunaren politikaren arrakasta batzuk indartzea, hauen artean Erasmus Programa, bai eta Europako Elkartasun Taldea indartzea ere.

EAJ-PNVk agurtzen du, etorkizunerako abiapuntu on eta etorkizunerako seinale hobe gisa, gai-ardatz guztietan agertzen den apustu horizontala, toki eta erregio mailako gobernuetatik hurbilago egongo den Europaren alde, Estatu batekin identifikatzen ez diren nazio nortasun eta kulturekin sentiberago agertuko denaren alde.

Apustu hau estimulagarri egiten zaigu hiru arrazoiengatik. Lehenik eta behin, erabakietan parte hartzea eta politiken eraginkortasuna ahalbidetzen duelako, bai eta hiritargoa Europako erabaki prozesuetara hurbiltzen duelako ere, bai eta horiek ulertzeraz eta gobernantza maila bakoitzaren mugak eta indarguneak dituela ikustera ere. Eta, azkenik, Estatu-nazio kontzeptu zaharkituan eman beharreko eboluzioa sustatzen duelako, indarrean jarraitzen baitu oraindik hainbat goi funtzionarioen pentsamoldean. Nazionalismo baztertzailerik hori darabilte bandera gisa estremismoek, Europako hainbat herrialdetan Batasunaren beraren baloreak eta bideragarritasuna mehatxatzen dituenak.

Europako gobernantzan toki eta erregio erakundeen inplikazioa hobetzeko beharra, Batasunaren botere legegileak barne hartzea, bai eta erregioetakoak ere, subsidiarioritasun printzipioaren aplikazio zentzuzkoa bideratzeko, gobernantza maila

# WE'RE EUROPEANS

#EUROPEDAY

[www.democrats.eu](http://www.democrats.eu)

hauekin are harreman estuago eta eraikitzaileagoa izateko deia dira. EAJ-PNVren aburuz, Batasunean nagusi den aniztasun kontzeptuan eman beharreko eboluzio zuzenaren zantzuak.

Aniztasunak askotariko alderdiak ditu. Estatuetan praktikatzen diren nazionalismoek nortasun kontzeptura murrizteko joera dute eta eskusio terminoetan planteatu ohi dute. Gainera, eurentzat hartzen dituzte arbitrajea egiteko tresnak. Hala urratzen dira Estatu hauen nortasunak bezain errealak diren nazio nortasunen funtsezko eskubideak. Nazio nortasun hauek hartzen dituzte egun Europako 50 milioitik gorako hiritar.

Aniztasunak, gainera, bestelako adierazpen ekonomiko eta produktiboak ditu eta, arestian aipatutakoekin batera, europar gizartearen kultura korporatiboa osatzen dute eta subiranotasun partekatuen eta egun daukagun munduan elkarrekiko dugun mendekotasunaren adierazpen dira. Hala, nazioen mugaz gaindiko esparru batzuk daude, mugaz gaindiko garapen eta berrikuntza ardatzak, bai eta espezializazio eta indarguneak ere, Estaturen mapekin inolako zerikusirik ez dutenak, aitorpen eta trataera bereziarekin eta gero eta agerpen handiagoarekin Europako hainbat programetan.

Horregatik, aniztasunaren kontzeptu integral hau babesten duten hiritarren ekarpenak, eskubideen ikuspuntutik bidezkoak izateaz gain, eraginkorrak ere badira kudeaketaren alderditik. Errealitate hauek erreprimiteak edo ezikusienaren egiteak ez ditu desagerraraziko. Guztiz alderantziz, gatazkak elikatu ahal ditu, errealismotik eta "Aniztasunean batuta", Batasunaren berezko goiburuen aplikazio hedakor eta integraletik saihestu ahal direnak.

Zentzu honetan, argi eta garbi kritikatzeko dugu Konferentzian hiritargoak nagusitasunez babestu dituen proposamenetatik bigarrena Europako Demokrasiari dedikatutako ondorioen paneletik kentzeko ideia: parteen arteko arbitraje lanak egingo lituzkeen mekanismoa sortzea subiranotasun auziak eta aniztasun hau aitortzearen ingurukoak gatazka bihurtzen diren kasuetarako. Eskarmentuak diosku nazio nortasunaren eta subiranotasunaren ikuskera baztertzaila inposatzeko erabiltzen den Estatu arrazoiak Zuzenbide estatuaren kalitatea narriatu ohi duela eta, berez, kaltegarria ere badela Europaren eraikuntzarako. Hori dela eta, kasuistika ez da soilik bere aniztasun propioa aitortzera eta bereganatzera iristen ez den Estatu kidearen arazoa, Europa osoan ere benetako arazo bihurtzen delako.

Horregatik, EAJ-PNVk mekanismo hau defendatzen jarraituko du. Uste du, gainera, ez bai hauen trataera erabat demokratikoa izan daitekeela laborategirik onena antzinako Nazio-estatuak bestelako egitura berritzaileagoetara eramateko, Europako Batasunaren gero eta federalizatzeko maila handiagoarekin zerikusi handiagoa izango dutenak.

**Etorkizuna.**

Europaren Etorkizunari buruzko Konferentzia da, gauza guztien gaintik, prozesu baten hasiera, eta hiritarren parte hartzerako dinamiketan sakonduz Europako III. Konbentzioan amaitu beharko luke Itunen erreforma ahalbidetuz, horiek eguneratzeko oinarritik abiatuta eta hiritarrendik hurbilen dauden erakundeen eskuduntzak errespetatuz.

Konbentzioko kideak, European ematen den aniztasunaren ordezkari demokratikoak diren heinean, erakundeen malgutasunari laguntzeko erreformak berrikusi eta proposatu beharko lituzkete, bai eta arintasunari ere nazioarteko egungo egoerak eskatzen dituen erabakiak hartzerako orduan.

Mundu global honetan, erronka partekatuekin eta gure arteko gero eta harreman estuagoarekin, Europak bere subiranotasuna indartu behar du, politikaren egungo kudeaketan gobernuen arteko harreman hutsetik Batasunaren benetako kudeaketara jauzi eginez, Europak bere buruzagitza eta protagonismoa berreskura dezan mundu mailako joko eremuan.

Halaber, azken krisiek agerian utzi dute Europa mailako autonomia estrategikoa garatu beharra dagoela askotariko esparru, politika eta ezinbesteko zaizkigun industriatan, kanpoko herrialdeekin dugun mendekotasuna murrizten lagunduko dutenak eta prozesu produktiboak eragotziko ez dituztenak.

Bestetik, Konferentziarekin abiarazi den prozesu parte hartzailea finkatu egin behar da, hobetu, orokortu eta Batasunaren gobernantzaren eta demokraziaren nortasun ezaugarri bihurtu. Federazio batek beharrezko duen baterakuntza konbentzituak gardentasunetik sortzen da, konpromisotik eta osatzen dutenen inplikaziotik. Gure demokrazia kolokan jartzen duten 'fake news' deritzotenen kontrako antidotorik onena da gai publikoetan pertsonen inplikazio hori sustatzea, bai eta antolatzea ere, gure demokrazia hobetu eta eguneratu ahal duen ezagutza baliatzeko.

Hori dela eta, EAJ-PNVk gobernantza ireki bat babesten du eta esparru horretan lan egiten jarraituko du, Europa behetik gora eraikitzeko eredu hau sustatuz, gardentasunean eta parte hartzean oinarrituta, informazioaren plataforma eta teknologia berriak erabiliz. 'Entzunez Eraiki' izeneko prozesua, gure erakundeak duela hilabete batzuk abian jarri zuena, hiritargoari jarrera ireki eta aktiboarekin entzuteko prozesuan instalatzeko dugun borondate irmoaren adierazpen argia da, parte hartzea sustatzekoarena, erabakiak hartzeko ditugun prozesuak hobetzeko eta gure konpromiso politikoa berresteko daukagun asmoarena.

Jabetzen gara Estatuarekin eta estatus azpiko erakundeekin subiranotasuna partekatuzera deituta dagoen Europa federalera garamatzaten ideiak ez dituztela, maila berean, Europako Batasuna osatzen duten 27 estatuak partekatzen. Horregatik, abiadura ezberdinak aurreikusiko dituen integrazio prozesua aurreikusteko sasoia dugu. Hala,

# WE'RE EUROPEANS

#EUROPEDAY

[www.democrats.eu](http://www.democrats.eu)

abangoardiako talde bat zor liteke, herrialde europazaleenek lideratua, bere abantailak egiaztatu ahal izango dituen benetako integrazio politikoa lortze aldera.

Europaren Etorbizunari buruzko Konferentziak ekarri du ibilbide parte-hartzaileagoa, Europako hiritargoarekin konektatua, zeinetan sakondu egin beharko baita. Bere amaiera zuzenean konektatuta dago Itunen aldarazpenerako ireki den bidearekin, gure egituraketa instituzionala eguneratuz eta Europako Konstituzioaren sorrerarekin bukatuz. Europako Konstituzio federala, oinarritik eraikia, hiritarregandik hurbilen dauden erakundeen eskumenak errespetatuz. Testuinguru honetan, esparru propioa aurreikusi behar da toki eta erregio mailako erakundeentzat baina baita, eta bereziki gure Euskal nazioarentzat, Estaturik ez duten beste nazioekin elkarlanean, etorkizuneko Europako Federazioan esparru propioa izan dezagun, subjektu politiko gisa.